

AZPEITIA / Zerbitzu berriak liburutegian WI-FI sistema ipini dute eta DVD, bideo eta diskoak hartu daitezke maileguan

Nerea Uranga

Udaleko Kultura eta Gazteria sailak zerbitzu berriak jarri ditu abian Udal Liburutegian. WI-FI sistema jarri dute. Horretaz gainera, DVD, bideo eta diskoak hartu daitezke maileguan.

WI-FI sistemaren berri Aitor Gorrotxategi Udaleko Kultura sailburuak eman zuen atzo, liburutegian bertan. Hemendik aurrera, edonor bere ordenadore portatilarekin etorri eta Interneten ibiltzeko aukera dauka. Sistema honek ez du kablerik eskatzen. Batez ere unibertsitateko ikasleei eta kanpotik herrira lanera etortzen diren profesionaleri zuzendutako zerbitzua da, azaldu zuen Gorrotxategik.

Bestetik, liburuez gainera DVD, bideo, disko eta kaseteak maileguan hartzeko aukera ere jarri dute. Dagoeneko katalogatuta dauzkate eta maileguan hartzeko aukera dago. Batez ere material dibulгатiboa dago, dio Joxe Mari Galarraga liburutegiko langileak. Bi gunetan jarri dituzte bideo eta diskoak, helduen gunean dago bat, eta bestea, berriz, haurren txokoa.